

Zulo beltza

Joxe Rojas Granja
TOPAGUNEA Euskara Elkarteen Federazioa // www.teknopata.net
joxerg@gmail.com, web gunea



GIZARTE-SAREAK

Sareak sekulako mesedea egin digu gure ideiak, hausnarketak edota, besterik gabe, harrikadak munduarekin konpartitu nahi ditugunoi. Euskaldunoi ere bai. Inoiz baino errazagoa eta merkeagoa da euskarazko edukiak plazaratzea eta, batez ere, euskarazko eduki horiek aurkitu eta eskuratzea.

Neurri batean behintzat, sarean dauden euskarazko edukiak (euskal blogosfera, sare sozialetan han-hemenka euskaraz gabiltzan euskaldunok, hedabideak...) gure komunitatearentzako 'zulo beltz' baten moduan funtzionatzen ari dira, inguruan dabilzanak zentrorantz erakarriz.

Pozteko arrazoiak

Hala, inguru erabat erdaldunean bizi garenok ere sarean horren aktibo dabilen euskal komunitatearekiko loturak eraiki eta haren parte izatera pasa gaitezke sareen bidez. Baina gainera, beste hizkuntz komunitateetako kideei etengabe ematen diegu gure jardunaren berri, eta noizean behin egiten ari garenarekiko interesa piztu ere.

Oraindik askoz ere gauza gehiago egin daitezkeela jakinda ere; egiten ditugunak askoz hobeto egiteko bidea badagoela aitortuta ere, pozteko arrazoiak badirela esan daiteke. Eta esan egin behar da!

Azalpen honetan horixe hartuko dugu mintzagai: oraindik egiteke duguna baino, egiten ari garena azpimarratu eta pozteko arrazoi horiek gogora ekarri, aurrera begirako bidea markatzeko ere balio dezaketelakoan.